

Berrigara

Karibetik Euskal Herrira

Dominikar Errepublikakoen esperientziak

Egin zaitez **JAM** aretoko bazkide,
2.000 pezetaren truke
urte osorako sarrera!*

Izena emateko: Jam aretoko kafetegia, leihatila eta Etxagi taberna

*Ekitaldi berezietarako izan ezik



Mariaren Lagundia Ikastola



200 URTE BERGARAN
HEZIKETAREN ZERBITZUAN

*Haur hezkuntzarako,
Lehen Hezkuntzarako*

*eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako
aurrematrikulazio epea otsailaren 1etik 12ra*

Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1. Tf. 943 76 25 40. Matrikula orduak, 9:30-13:00 eta 16:30-18:30

ESKAINNTZA

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)
- Heziketa Zikloak
 - Osasuna (Sanitarioa)
 - Eskaintza Soziokulturalak eta Komunitatearentzakoak
- Bestelako zerbitzuak
 - Jangela
 - Eguerdian haurtzaindegia
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Psikologia zerbitzua
 - Eta abar



GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 76 36 42
Faxa: 943 76 54 25
San Juan auzoa z/g
20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

- Elkarte europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniara eta
- Hungariara



Antzuelako berbetia

Markos Balentziaga / Irakaslea

Antzuelako hizkera izenakin kaleratu dau oraintsu bertako Udalak Jone Larrañagak egin daben herriko berbetiaren batze lan serio eta arretatsua. Ordu luzeetako ekarria miretsi eta gozatu leike Antzuelako hizkeran. Hamaika argibide, kontu eta xehetasun dakartso esku-eskura zaretasun hutsez be liburura gerturazten danari.

Begirada arretatsurako gogua daukanak begikortasun laztanez laututa aurkituko dau orain arte, akaso, otadi malkarra besterik ez zeban fonologiaren aldapia; eta pasialeku leun iritziko dotse txara petratzat euki dittuan adizari edo sintaxiari.

Oharmen zoliz jasota daude liburuan, barbarako, "neri tartia gustatzen jat" eta "neri pastelak gustatzen jat" moduko perpausak. Bigarrenak euskal aditzaren oinarri-oinarrizko komunztadurara araua hausten dau, ("pastelak gustatzen jataz") jakina danez, eta Antzuelan ez ezik inguruetan be etenbarik erabiltzen dogu.

Ondoren, gustua dabenari lexikoa-

rekin gozatzeko aukera eskaintzen dotse liburugile perkatxak... eta sorpresa bat baino gehiago daude gordeta sail horri eskeinitako orri luzeetan. Euskera polittagoaren miria iritzi -faltan bota eta Olamendin gora haren bila joan dan batek baino gehixaok dauka jakin beharra Deskargako estratan alperrik nekatzen ibili barik, mendipian, etxian dabela berbeta modu poxpoliñ askoa.

Esamolde, atsotitz, kantu eta gainerako... hamaikatxo berri eta informazi-

"Antzuelar bati baino gehixaori inoiz egin

dotsen radiografiarik

osoena egin dotsa

Jone Larrañagak:

animia bera be

erretratau dotsa eta!"

ño atera dittu gordetik autore maratzak, liburuko hirurehun eta berrogeitamaretik gorako orrialdeetan zehar. Antzuelar bati baino gehixaori inoiz egin dotsen radiografiarik osoena egin dotsa Jonek: animia bera be erretratau dotsa eta!

Baina erretratuak aittatuta, bada erdizka besterik agertzen ez dan Antzuelako parajea: Txangala.

Txangalaren aittamena adibide bat baino gehixaotan egiten da liburuan zehar; iragaitzean edo pasadan beti. Zenbait baserri-izen, barbarako, horixe dirala -baserri-izen dirala- esplikatu egiten da, baina Txangala zer dan edo non dagoan, ez.

Kontua da -bide batez esanda- Udalak be ez dabela Txangala izena jasotzen auzoz auzo egin daben errotulaziño-lan ederrean, ezta 1994an argitara emondako mapan be. Baina honek bestelako kontuak dira.

Antzuelako eta inguruko berbetiaren nondik-norakoan berri xehe-xehia nahi dabenak, orain badauka nora jo.

Portau haiz, Jone! **B**

■ barruan



Marta Abreu

Dominikar Errepublikakoa

"Jende batek uste du nire iraganagatik ezin dudala bizimodu zintzorik izan"

17.



Joseba Lopez

Motokoroslaria

"Motokroserako ondo prestatuta egon behar da: gimnasia joan, korrika egin..."

21.



Pilar Garcia

Markiegi autoetakoa

"Auto bat erosterakoan lagunduriko direkzioa duen eta azkarra den begiratzen dut"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1915. Otsailaren 9an jaio zen Bergaran Simon Arrieta Aroste-gi. 15 urterekin Eustakio Agirreolarekin hasi zen pintura ikasten. Geroago Zuloagaren ikasle izango zen. Europako hiriburua askotan egin zituen erakusketak. 3.500 koadrotik gora egin zituen. 1969. urtean hil zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1615. Otsailaren 4an Ordizia eta Beasain banatu egin ziren.
1910. Otsailaren 3an Cadena y Eleta Gasteizko apezpikuak haurrei euskal izenak ipintzea debekatu zuen.

MUNDUAN GERTATUA

1881. Otsailaren 1ean Bartzelonako La Vanguardia egunkariren lehen alea banatu zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzza 29
 10-11-26-33-38-40 (osag.42/itz.4)
Astelehena 1
 9-20-21-38-41-43 (osag.19/itz.6)
Martitzena 2
 2-3-6-16-30-43 (osag.4/itz.8)
Eguaztena 3
 14-28-31-35-36-44 (osag.20/itz.5)

PRIMITIVA

Zapatua 30
 1-11-17-22-24-42 (osag.5/itz.5)
Domeka 31 Saritzarra
 1-10-15-21-40-49 (osag.6/itz.0)

ONCE


Eguakitzza 29: 36.249 (023 seriea)
Astelehena 1: 65.386
Martitzena 2: 04.136
Eguaztena 3: 54.177

BESTE BATZUK

Ipintza institutuko ikasleen zozketa (Ertamerikarako laguntza): 06.330
AEK, soldata bat: 36.249

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Zeruak estalita izango ditugu astebukaeran. Eguakitz eta zapatuan euri arriskua handiagoa izango da, batez ere eguakitzean. Domekan, zerbait hobetuko du, baina hodeiak nagusituko dira. Haizeak ipar-mendebaletik joko du.

Ilargiaren aldiak

- Ilbete: urtarrilak 31
- Ilbehera: otsailak 8
- Ilberri: otsailak 16
- Ilgora: otsailak 23

Eguzkia

Domeka, otsailak 7



Sortu: 08:22



Gorde: 18:42

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 28	11	8	15,5
Eguakitzza 29	11	10	13,1
Zapatua 30	9	2	-
Domeka 31	5	-4	-
Astelehena 1	7	-3	0,9
Martitzena 2	7	4	0,6
Eguaztena 3	8	5	-


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Anportu

Sohortu, gogortu.

- *Aspaldixan jan eta lo besterik ezto eitten da ziero anportuta nago.*



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Soinua isiltasunean

Biolin normal batek dituen soinu-ezaugarri berak ditu Yamaha markako "Silent Electric Violin" berriak, baina chip batek digitalizatu egiten du soinua eta, ondorioz, entzungailutik entzun daiteke. Gainera, aurretik grabatutako akonpainamendu bat entzuteko bidea ere ematen du. Auzotarrak molestatu gabe bibolina jo ahal izateko ezin egokiagoa.

Farmaziak

Eguakitzza 5:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Zapatua 6:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Domeka 7:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Astelehena 8:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 06

Martitzena 9:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Eguaztena 10:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Eguena 11:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Ogia

Domeka 7: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udalzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 13 43
Pakea	943 76 13 43
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 30
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 88

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 32
Erregistroa	943 76 13 16
Jardun	943 76 26 00
Jubilatuen Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 63


zorian agurrak



Maite Zabaleta
Otsailaren 7an
14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Uxue Oteo
Otsailaren 7an
11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Manso
Otsailaren 5ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Josu.



Juli Rodriguez
Otsailaren 7an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Familia,
Ander eta Mikel.



Joseba Carnicero
Otsailaren 6an
urtebete. Urte asko-
tarako eta muxu
handi bat! Etxekoak.



Miren Carnicero
Otsailaren 6an
urtebete. Urte asko-
tarako eta muxu
handi bat! Etxekoak.



Lirain Sotil
Otsailaren 6an
16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Kortabarría
Otsailaren 7an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Yiria Remesal
Otsailaren 6an
12 urte.
Urte askotarako!
Familia.



Mikel Mengual
Otsailaren 9an
4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ander.



Iosu Manso
Otsailaren 9an
6 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak,
Ainara eta Nagore.



Jesus Manso
7an 39 urte. Urte
askotarako!
Etxekoak, Ainara,
Nagore eta Iosu.

hildakoak

BERGARA
Miguel Epelde Arano
Urtarrilak 29, 84 urte

jaiotakoak

BERGARA
Amaia Motoso Elizburu
Urtarrilak 22
Amaia Etxaniz Lasa
Urtarrilak 22
Beñat Uribesalgo Alzola
Urtarrilak 25
Iraia Nuñez Lozano
Urtarrilak 26
Joanes Ruiz de Egin Fernandez
Urtarrilak 30



Rachael Olabarria
7an 14 urte. Urte
askotarako! Miren,
Mikel, Leire eta are-
to futboleko taldea.



Erik Iñarra
Otsailaren 10ean
9 urte. Urte askota-
rako! Julen, Yoli
eta familia.



Emili Sancho
8an urtebetetzea.
Zorionak! Eta zorio-
nak ezkontza urte-
mugan! Etxekoak.



Pablo Rodriguez
8an urtebetetzea.
Zorionak! Eta zorio-
nak ezkontza urte-
mugan! Etxekoak.



Amaia Rodriguez
Otsailaren 6an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Igor Granados
Otsailaren 11n
20 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Arkaitz Gonzalez
Otsailaren 6an
12 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Nielka Ibaguren
7an 9 urte. Urte
askotarako! Rosari-
to, Eider
eta Itxaro.



Olatz Azkarate
Otsailaren 6an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Selene Perez
Otsailaren 5ean
6 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



Doroteo Samanes
Otsailaren 6an
74 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



Fatima Martinez
Otsailaren 8an
17 urte. Urte asko-
tarako! Etxekoak
eta koadrilakoak.



Miren Ignacio
Otsailaren 9an
2 urte.
Urte askotarako!
Naiara.



Lierni Lasa
Otsailaren 9an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Asier eta Ainara.



Ainhoa Iglesias
7an 16 urte. Urte
askotarako etxeko
ederrenari familia
osoaren partetik.



Lorena Fernandez
Otsailaren 11n
12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mikel Aginagalde
Otsailaren 7an
6 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak
eta Nerea.



Fran Ramos
Otsailaren 7an
5 urte. Urte askota-
rako! Familia, Ander
eta Mikel.



Maite Aranzabal
Otsailaren 10ean
6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jon.



Nerea Sotil
Otsailaren 6an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Antonio.



Meltxor Alberdi
Otsailaren 9an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Asier eta Ainara.



Ander Uribesalgo
Otsailaren 7an
22 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta Leire.

ESKER ONA

Miguel Epelde Arano

Bergaran hil zen
1999ko urtarrilaren 29an,
84 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Hurrengo alean, Berrigara 355,
OTSAILAREN 12a eta
OTSAILAREN 18a
BITARTEKO pertsonen
zorian agurrak bakarrik
argitaratuko dira.*

MUSIKA

► **Mutuo desprecio** taldea gaur, 23:00etan Pol-Polen.

► **Las Brujas** taldea gaur, eguakitza, gauerdian Infernukua tabernan.

► **Arriolako II.** Flamenco lhardunaldien barruan, **Los martires del compas** taldea gaur 22:30etan Elorrion.

► **Baron Rojo eta Fucking What!** bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

► **Hi Blai** taldearen emanaldia bihar, zapatua, 23:30etan Nahikari tabernan.

► **Mikel Urdangarin** kanta-riaren saio akustikoa Kultur Errotaren barruan. Domekan, 20:00etan Pol-Polen. "Badira hiru aste" diskoa aurkeztuko du.

ERAKUSKETAK

► **Dani Laskurainen** margo erakusketa Nahikari tabernan.

► **Ramon Aranzabalen** margo erakusketa otsailaren 14ra arte Kultur Etxean.

IKASTAROAK

► **Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzuak** honako ikastaroak antolatzen ditu: irratikontrola, argazkigintza, eus-

ANTZERKIA

Nerudaren postaria

Noiz: zapatua, 22:30etan

Non: Novedades aretoan

Sarrera: 800 pezeta.600 langabetuentzat eta 25 urtera arteko gazteentzat

Michael Radford zine zuzendariak 1994an errodatutako "Postaria (eta Pablo Neruda)" filmeak Antonio Skármeta txiletar idazlearen lana ezagutzera eman zuen mundu osoan. Aipatutako filmea Skármetaren "Ardiente paciencia" izenburuko narrazioan oinarriturik dago eta egileak berak lan honen beste bertsio zinematografikoa egin zuen 1982an. Maskarada taldeak, Skármetaren lana antzestu nahirik, idazlearen eleberria hartu du oinarritzat baina Radford britaniarraren filmeak ez bezala, jatorrizko testuingurua berreskuratuz, kontakizuna Allenderen garaian eta Txile herrialdean kokatuz, Pablo Nerudaren Isla Negrako etxean hain zuzen ere.

Mario (Xegundo Altolagirre aktorea) gaztea postari laguntzaile lanetan aritzen da Txile-

ko kostaldeko herri txiki batean eta bere bezero bakarra Neruda idazlea (Ramon Castro) da. Mariok, bizikletan, bidaia ugari egin behar izaten du Nerudaren etxeraino baina, poeta miresten duenez, gustora egiten du bere lana. Kultura eskasekoa izanik, Mario Beatriz Gonzalezekin (Katrín Schlegel) maitemintzen denean, poetaren laguntza izango du. Ondoren Neruda Txileko enbaxadore izendatuko dute Parisen eta Mario, bien bitartean, poetaren berrien zain bizi da. Elkarri idazten jarraituko dute eta azkenean berriro elkartuko dira. Narrazioan gai asko uztartzen dira: poeta eta postariaren arteko harreman berezia, poesia, amodioa, Txileko orduko egoera politikoa edota Nerudaren arrakasta, konpromezu politikoa eta ondorengo heriotza.



Maskarada taldearen azken antzezlaneko irudi bat.

kal dantzak eta Karibeko dantzak. Izen-ematea eta argibideak 943 77 00 65 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **Jose Maria Arizmendiarieta XIII.**

Lehiaketa, irakaskuntza ertainetako Euskal Herriko ikasleei zuzenduta. Lehiaketaren gaia: "Amets bat eraikiz". Narrazio-informazio testuak (15 orrialde gutxienez) zein saiakerak (25 orrialdetik gorakoak) aurkez daitezke euskaraz zein gaztelaniaz. Argibideak: 943 79 31 32.

DEIAK

► **Txino jokoaren txapelketa** gaur, eguakitza, 23:00etan Aralar tabernan. Izen-ematea ordubete lehenengo egin beharko da (300 pezeta partaide bakoitzeko).



Gracian Gracian
usaindegia, mertzeria eta...
ihauterietarako osagarriak
Bidekurutzeta 6
Tf: 943 76 10 25

ZUBIAURRE aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako ateak.
- Neurrira egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

► **Ipintza Institutuan**
"Ateak zabalik"eko ihardu-
maldia bihar, zapatua, otsailak
6. Ikastetxea barrutik ezagutze-
ko aukera, 11:30etatik
13:30etara eta 16:30etatik
18:30etara. Bestalde, gurasoei
eta ikasleei zuzendutako bilera
informatiboa egunean, hilak
11, 19:00etan areto nagusian.

► **Odol ateraldia** eguaztene-
an, otsailak 10, 18:30etan.

► **San Joxepe jubilatuen**
elkarrekin Ihautei festa iraga-
rri du martitzen karnabalerako,
otsailaren 16rako. Bazkarirako
izen-ematea (2.500)
Jubilatueta edo 943 76 21 40
zenbakian. Bazkalostean dan-
tzaldia izango da.

► **Diputazioak** 65 urtetik
gorakoei zuzendutako **egonal-
diak** antolatzen ditu Alcoce-
ber-en (Castellonen) eta
Arnedillo, Fitero edo Seron-go
bainuetxeetan. Era berean,
Galizia bisitatzeko bost egune-
ko bidaiak antolatu dira.
943 76 21 40.

► **Komite Internazionalis-
tak** taldearen eskutik, **Carlos
Taibo** Madrileko Unibertsitate
Autonomoko irakasleak
Kosovoren inguruko hitzaldia
emango du astelehenean, hilak
8, 19:30etan Kultur Etxean.

► **Jose Mari Etxaniz** espe-
teratu zutela 19 urte betetzen
direla eta, Puerto de Santa
Mariara irteera eguakitzean,
otsailak 19. Izen-ematea Pol-
Polen, Arranon edota

Kortazarren. Bestalde,
"Bergarara plataforma" astele-
henero 20:00etan Pol-Polen bil-
tzen dela gogorarazten da.

OHARRAK

► **Mariaren Lagundia.**
Ikastetxearekin zerikusia duten
argazkiak dituztenei 200. urte-
rreneko ekitaldien barruan
antolatu nahi den erakusketan
laguntzeko dei egiten zaie.

JAIK

► **San Blas auzoan jaiak.**
Gaur, eguakitzatza, Santa Ageda
eguna, 20:30etan auzo afaria
eta jarraian Orioko bertsolarien
eta txiste kontalarien saioa.
Bihar, zapatua, mus txapelketa
(8 erregetera) arratsaldeko
4retan (izen-ematea orduerdi
lehenago, 2.000 pezeta bikote-
ko). Eta domekan, 11:00etan
Meza Nagusia, jarraian Orfeoi
Gaztearen emanaldia, ondoren
saldatzen auzo elkartean eta
12etan Aranzadi Ikastolako
Moises Azpiazu dantza taldea-
ren saioa. 12:30etan haur eta
helduentzat, txerri harrapatzea
eta haurrentzako jolasak eta
kukañak. Bukatzeko, 13:30ak
aldera, harrijasotzaile gazteen
II. San Blas saria jokatu da.

KINTADAK

► **1973an** jaiotakoen bazkaria
bihar, otsailak 6, Antxoni jate-
txean. Aurretik, 12:00etan, Pol-
Pol tabernan elkartuko dira.

Z I N E A

KARTEDEGIA

BERGARA. Novedades

El milagro de P. Tinto

Eguakitzatza: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

El Abuelo

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

54

Eguakitzatza: 22:00.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Practicamente magia

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna:

19:00, 21:30.

Estacion Central de Brasil

Eguena: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Enemigo publico

Eguakitzatza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Estado de sitio

Eguakitzatza: 22:15.

Zapatua: 19:00, 22:15.

Domeka: 19:00, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

AZKOITIA. Bazartxo

Trees Lounge

Eguakitzatza: 22:00. Jatorrizko bertsioa

Mas fuerte que su destino

Zapatua: 22:00

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.

ELORRIO. Arriola

Mas alla de los sueños

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Un verano en la Goulette

Eguena, zine-kluba: 20:15.

EL MILAGRO DE P. TINTO

Zuzendaria: Javier Fesser.

Aktoreak: Luis Ciges, Silvia
Casanova, Pablo Pinedo.

Javier Fesser-ek zuzendutako
filme honek takilari arrakasta
handia izateaz gain, efektu
berezi onenei zegokion Goya
saria eskuratu berri du. P. Tin-
tok (Luis Ciges aktorea) txiki-
tatik familia ugaria izateko
ametsa dauka. Oliviarekin
(Silvia Casanova) ezkondu
ondoren, umeak ez dira hel-
tzen baina gertakari batek
(miraria akaso?) beraien bizi-
tza guztiz aldatuko du...



EL ABUELO

Zuzendaria: Jose Luis Garci.

Aktoreak: Fernando Fernan-Go-
mez, Cayetana Guillen.

Jose Luis Garci zuzendariaren
filmeak zeresan ugari eman
du Goya sarien atarian, ustez-
ko boto erosketa zela eta. Ha-
la ere, Oscarretarako izenda-
pena jaso du. Garcik Benito
Perez Galdosen nobela egoki-
tu du eta bertan familiaren
ohorea defenditzen duen aito-
na (Fernan-Gomez) eta bere
ilobaren (Cayetana Guillen)
arteko harreman konfliktiboa
kontakten zaigu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Ψ
NARE
psikologoak

HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR
Tf. 943 20 05 95

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Jon De Pedro bergararra (22 urte) karrera amaierako proiektua egiten ari da Japonen. Arrasateko Eskola Politeknikoan Ingenieritza Elektronikoko ikasketak egin ondoren, ekialde urrunera joateko proposamena jaso zuen eta ez zuen bi aldiz pentsatu. Jonek Martin bere anaia bizi izan zuen Gabonetan eta honako elkarrizketa egin zion Martinek.

Martin De Pedro

G. Nolatan joan zinen Japonera?

E. Karrera bukaerako proiektua Japonen egiteko aukera izan nuen eta aukeratu egin ninduten. Luisekin, Arrasateko beste lagun batekin, etorri nintzen eta Komaki herrian bizi gara, Japoneko hirugarren hiririk inportanteena den Nagoyatik gertu.

G. Zer moduz egon zara orain arte?

E. Urtebeterako etorri naiz eta jadanik hiru hilabete pasatu dira, nahiko azkar pasatzen ari zait denbora, gainera hemen egunero ikasten da zerbait berria, bai lanean, bai eguneroko bizitzan ere.

G. Kontaiguzu nolakoa den zure egun bat.

E. Goizeko zazpitan jaikitzen naiz eta zortziarako lanean nago. "Biltegi inteligenteak" (langileak ordezkatzeko errotoak eta programak) egiten dituen Daifuku enpresan ari naiz. Eguerdiko 12:30etan atsedena izaten dugu bazkaltzeko. Atsedena orduerdiko izaten da eta gero ordubateko arratsaldeko zazpitarako bulegora lanera berri. Lanetik irten eta erresidentziara joaten naiz eta, egunaren arabera, afaldu, erosketak egin, plantxatu

JON DE PEDRO

Japonen dagoen ikaslea

"Mundu berri bat aurkitzea bezala izan da Japonera ikastera eta lanera etortzea"



Jon De Pedro abuztura arte egongo da Japonen.

MARTIN DE PEDRO

edota erropa garbitzen dut. Lagunekin ere egoten naiz. Iluntze aldera ikasi piskat eta gutunak idazten ditut.

G. Zer moduz moldatzen zara hizkuntzarekin?

E. Japoniera klaseak izaten ditugu astean behin eta ahal dudana guztietan errepasatzen dut, atzean ez gelditzeko. Dena den, kanpotarrok ingelesez berba

"Japoniarrak oso langileak, edukazio onekoak eta umoretsuak dira, beti daude laguntzeko prest. Lagun asko egin ditut hemen"

egiten dute normalean.

G. Erresidentzia lan egiten duzun enpresarena da ezta?

E. Bai, bertan bizi gara enpresako langile atzerriarrak. Besteak beste, Koreakoak, Taiwanekoak, amerikarrak, Indiakoak ere badira... Japonetik ez dago erresidentzian.

G. Nolakoa da Japonen? Eta japoniarrak?

E. Oso herri aurreratuak somatzen da berehala. Mundu berri bat aurkitzea bezala izan da Japonera etortzea. Tokio zientzia fikziozko hiri bat dirudi eta badira gau osoan zabalik dauden dendak ere bai. Bizimodua onkorrean oso garestia da. Bestalde, tradizioak errespetatzen dira; adibidez, nahiz eta Gabonak ez ospatu gure moduan, budistek (biztanleen gehiengoa) eta sintoistek prozesio ederrak egiten dituzte. Japoniarrak oso langileak, edukazio onekoak eta umoretsuak dira, beti daude laguntzeko prest. Lagun asko egin ditut.

G. Zer da gutxien gustatu zaizuna?

E. Janaria, dudarik gabe. Atzerriarroi asko kostatzen zaigu egunero arrain gordinak eta, ogiaren ordez, arraza jatea. Sagardotegi bat zabalduko nuke japoniarrek euskaldunok nola jaten dituzten erakusteko.

G. Bukatzeko, anekdotak bat izango duzu...

E. Askok gertatu zaizkion baina barregarriena kontatuko dizuet. Luis eta biok heldu berri ginenean gure ohorez afari bat antolatuta zuten. Posterra heltzerakoan biok altxatu ginen topa egiteko asmoz eta gure kopurua jaso eta "txin-txin" esan genuenean guztiak harriduraz aurpegiarekin begiratu gertuzten. Japonen "txin-txin" hitza pitilin esateko erabiltzen da. **B**

Bergara, iaz odol ateraldi gehien egin ziren herrien artean

Donostia eta Irunen atzetik, ateraldi gehien egin ziren herria

Bergarako odol emaleen elkarteak iazko odol ateraldiei buruzko datuak ezagutzera eman ditu. Esanguratsua da iaz ere, Donostia eta Irunen atzetik, Bergara izan zela odol ateraldi gehien egin ziren herria (1.485 ateraldi).

Fernando Idigoras Bergarako odol emaleen arduraduna pozik agertu da datu berri hauekin. "oso inportantea da bertako komunikabideek egiten duten lana eta baita ahoz-ahoko informazioa ere, odol ateraldien kopuruak gora egin duela eta gero eta gehiago direlako urtean hiru eta lau bider ateratzen dutenak". Kontu honetan, odol ateraldien urteko egutegia banatzea oso garrantzitsua dela adierazi du Idigoras.

ODOL EMALEAK ETA ATERALDIAK GIPUZKOAN		
	1997	1998
Odol ateraldiak	33.280	31.766
Odol emaleak	19.667	18.707
Odol emale berriak	2.899	1.979

ATERALDIAK 1998an		EMALE BERRIAK 1998an	
Donostia	6.174	Donostia	505
Irun	1.876	Irun	127
Bergara	1.485	Bergara	92
Azkoitia	1.235	Zarautz	66
Eibar	1.126	Errenteria	63
Beasain	1.046	Tolosa	51
		Hondarribia	51

ITURRIA: ODOL EMALEEN ELKARTEA

Odol ateraldien kopuruaren gorakadaren arrazoiak bi dira: alde batetik, odol emaleen kopurua hazi egin dela eta, bestetik, urtean pertsona batek egiten

duen ateraldi kopuruak ere gora egin duela. "Lehen, urtean ateraldi bat egiten zuen emale bakoitzak; gaur egun, urtean behin baino gehiagotan ematen dutenak asko

dira. Emakumeek, hiru bider eman dezakete urtean eta gizonetzkoek, lau bider".

Aurten, urtarrilean antolatuta ziren bi ateraldietan 134 odol ateraldi egin ziren; horietatik 8 emale berriak ziren. Datorren eguaztenean beste bat antolatuko da, ohizkoa den moduan 18:30etan Seminarioan. Fernando Idigoras esan digunez, baraurik joan beharrean zeozer janda joatea komeni da.

Bestalde, Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak, urtero udaberri inguruan egiten den Batzar Orokorra prestatzen hasia da dagoneko. 25 odol ateraldi egin dituzten 26 bergararrek jasoko dute aurten zilarrezko intsignia. Julian Aranburuk, berriz, urrezkoa jasoko du, 50 odol ateraldi eginak dituelako. **B**

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

KONDE



PANADEROKUA

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

MUJIKA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1



Oposizioak ez du ondo ikusi Ertzaintzak Arrizuriaga lagatzearren gorbernu taldeak eta Jaurlaritzak egindako tratua.

Arrizuriagaren kontuan Udalak egindako tratuaaren kontra HB

Herrizaingo Sailari 63 milioi pezeta ordaintzearen

Ertzaintzaren komisal-degi berria eraikitzeko lanak direla eta, Bergarako HBk gaiaren inguruko bere iritzia plazaratu du. Pentsara igorritako idazki batean, "Ertzaintzak 13 urtetan Arrizuriaga parkean egin duen okupazioa salatu behar dugu" esaten da.

Ertzaintzaren komisal-degi berria eraikitzen denean Arrizuriaga etxea eta inguruko lorategia, parke guztia, Bergarako Udalak hartuko du. Horren truke, orain dela bi urte Bergarako Udalak eta Herrizaingo Sailak sinatutako hitzarmenaren arabera, Bergarako Udalak 63 milioi pezeta ordaindu beharko dizkio Jaurlaritzari. HBrentzat "ulertezina da konpentsazio moduan 63

milioi ordaintzea, baloratzeke Ertzaintzak herriari 13 urtez ukatu diona. Hipoteka horregatik ez al dugu konpentsaziorik merezi? Zergatik ez da hau baloratu" irakur daiteke idatzian. Bestalde, Ertzaintza Arrizuriagatik eta Unzetatik irtetzea ondo ikusten du HBk, baina "halako Ertzaintzarik" Bergaran nahi ez duela dio HBk.

KULTUR ETXEA

1977. urtean Bergarako Udalak Arrizuriaga etxea Kultur Etxe bihurtzeko asmoa zuela gogoratzen du HBk. "Arrizuriaga etxea Udalarri eskaini zion ugazabak, Narbaiza jaunak, baina arazo ekonomikoak zirela medio Udalak Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialari egin zion erosteko proposamena. Honek 14 milioi

pezetatan erosi zituen jauregia, parkea eta berari zego-kion bolumen eraikigarria, baina baldintza hauekin: parkea Udalarentzat izan behar zen eta jauregian Bergarako herriarendako kultur etxea zabalduko zen. Udalak, inguruko lurren eraikigarritasun bolumena 0,1etik 60ra igo zuen, aurrezki kutxaren onerako" irakur daiteke idatzian.

HBk dioenez, urte batzuk beranduago, lehen Udal hauteskundeen ondoren, EAJ alkatetzan zegoela, Arrizuriagan Kultur Etxea jarri beharrean Ertzaintzaren komisaldegia eraikitzea erabaki zuen Udalak eta horrela hitzartu ei zuen Herrizaingo Sailarekin. HBk hitzarmen horiek ixilean eta herritarren iritzia jakin barik egin zirela salatu du.

Aratuzteetan mozorrorik onenak sarituko ditu Bedelkarrek

Bedelkarrek 25.000

pezetako bi sari emango ditu Aratuzteetako edozein egunetan mozorro onena erosten duenarentzat. Alde batetik, mozorro jantzi onena eta bestetik, ondoen gitorutako tabernari. Bedelkarreko edozein jate-txetan gastatzeko, 25.000 pezetako erosketara bono bana jasokodute sarituek.

Igerilekuak astebetetz itxita

Osakidetzak agin-

duta, urteroko garbiketa eta instalazioen ikuskaketa egiteko astebetetz itxi egingo dira Agorrosingo igerilekuak. Udal Kirol Zerbitzutik adierazi digutenez, otsailaren 15etik, astelehena, garbiketa bukatu arte egongo dira itxita piszinak.

Mariaren Lagundiaren 200. urteurreneko ekitaldiak

Gaur aurkezten

dira Mariaren Lagundiaren 200. urteurreneko ospakizun-ekitaldiak. Oliverri eta Garmendia sailburuak, Setien gotzaia, Koruko Aizarna Kultura diputatua eta alkatea izango dira aurkezpen ekitaldian gaur, 19:00etan eliza berriztuaz.

Lizarra-Garaziko Akordiokoak herri mailan lan egiteko elkartu dira

Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zuten alderdi, sindikatu eta taldeetako herriko ordezkariak Kultur Etxean elkartu ziren zapatuan. Batzorde iraunkorra sortuko dute akordioaren nondik-norakoak, orain arte egin direnak eta aurrerantzean emango diren urratsak herrian ezagutzera emateko eta ahal den neurrian gauzatzeko joateko. Argazkian, EAJ, HB, EA, EB, Zutik, ELA, LAB, ESK, EHNE eta STEE-EILAS, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Jarrai eta Elkarri-ko ordezkariak. Gutunak sailean irakur dezakezue Lizarra-Garaziko Akordioa.



Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zutenen herriko ordezkariak elkarrekin lan egingo dute.

GORA BIHOTZAK! BEHERA-PENAK!



Halako prezioetan ez duzu ikusiko hain erropa politxik
Otsailaren 1etik 15era*

	LEHEN	ORAIN
Praka parea	11.900tik aurrera	5.000 pezeta
Blusa	12.000tik aurrera	4.900 pezeta
Kamiseta	8.000tik aurrera	2.900 pezeta
Parka	32.000tik aurrera	10.000 pezeta
Gabardina	36.000tik aurrera	10.000 pezeta
Trajea	36.000 tik aurrera	15.000 pezeta

*Generoa agortu arte

MARGA
jantxidenda

San Pedro 20. Bergara. Tf. 943 76 05 37

*Eta beste guztia
erdiprezioan!*

Berrigara

354 zenbakia.
1999ko otsailaren 5a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi.

Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaureritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

LIZARRAKO AKORDIOA

Irlandako bake-prozesu eta akordioaren ezaugarriak kontuan izaki, Euskal Herriak nozitzen duen gatazkak ere konponbidea izan dezakeelakoan gara, beti ere jarraian aipatzen diren jokamoldeak errespetatzen diren neurrian:

Identifikazioa: Euskal arazoa izenarekin ezagutzen duguna jatorri eta izaera politikoa duen gatazka historikoa da, eta estatu espainiar eta frantsesak inplikaturik daude. Beraz, konponketak ere derrigorrez politikoa izan beharko du.

Gatazkaren sorrera eta mantentzeari buruzko ulermoldeak desberdinak izanik, berau lurraldetasuna, erabaki-subjetua eta burujabetza politikoa adierazten denez, aipaturikoak konpondu beharreko oinarriko arazo gisa aurkezten zaizkigu.

Metodoa: Elkarrizketa eta negoziazio prozesu irekiaren bitartez bakarrik gorpuztu daiteke konponketa politikoa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe

eta euskal gizarte osoaren eskuhartzearekin.

Hasierako fasea: Elkarrizketa prozesua eta negoziazioa, inplikaturiko eragileen arteko harreman eta elkarrizketa bitartez eman daiteke, elkarrizketa prozesua gauzatu dadin, inplikaturik dauden eragileentzako gaindiezinak suertatu daitezkeen aurrebaldintzarik gabe.

Erabaki fasea: Bere baitan arazoaren zergatiak aztertzeke nahia eta konpromisoa daraman negoziazio eta konponketa-prozesua, gatazkari lotuta azaltzen diren indarkeriazko adierazpenik gabe gauzatuko litzaiteke.

Negoizazioaren izaera: Negoizazioak osotasunezkoa izan behar du, hau da, arazoa osatzen duten eta bere ondorio diren kontu guztiak aztertuz eta erantzunak emanez. Ez dago agenda mugadunik. Honela, beraz, negoziazioa ez da hartu behar irabazi partikularren prozesu modura, arazoaren konponbide gisa baizik.

Konponbidearen giltzarriak: Esandakoak, konponbidea erabakitzeke negoziazioak bere baitan ez duela berariazko inposaketarik izango suposatzen du, euskal gizartearen aniztasuna errespetatu behar duela, proiektu guztiak erdiezteko baldintza berdinetan kokatzen direla, Euskal Herrian demokrazia sakondu behar duela -hau da, Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den euskal herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dutela- eta inplikaturiko estatuek erabaki hori errespetatu behar dutela. Euskal Herriak hitza eta erabakia izan behar du.

Ondoriozko eskenatokia: Konponbide-erabakial ez du eskenatoki itxi eta behin-betikorik edukiko. Alderantziz, honi esker, euskal herritarren tradizioari eta subirautza-asmoerak eskainiko dizkieten formula berriak kokatzeko toki zabalak eratzea eratzuko da.

Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zuten alderdi sindikatu eta taldeak

tira biraka: alex ugalde

Haritz zurez egindako eta ezepele egindako detaileak zituen armairu hura zoragarria zen eta izan beharko gainera, kostatu zitzaidana kostatu ondoren. Egin zuten alemanek, ni neu armairua hautsi baino lehenago hilko nintzela ziurtatu zidaten. Baina azkenaldian karraska asko entzuten hasia nintzen. Alemani deitezketan nintzen...



Eta orduantxe izan zen lurrikara.



Alemanak, alemanak.



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

HOTZ IKARAGARRIA KIROLDEGIAN

Ana Gonzalezek deitu zigun astelehenean BERRIGARRA. Bere lagun batek Gipuzkoako Arku Tiraketa txapelketan parte hartzen zuela eta, Ana domekan Kiroldegian izan zen. Goiz osoa eman zuen Kiroldegian eta hotz handia pasatu ei zuen. Anak esan digunez berogailua faltan bota zuen, kirol proba bat jarraitzeko gutxienezko neurririk ez baitzegoen. Udalarik Kiroldegian berogailua jartzeko azter dezan eskatu nahi dio, berogailuaren arazoak jende askorengan baitu eragina. Gimnasia erritmikoan ari diren hainbat nesken amek ere komentatu diote Anari negu parteko txapelketetan Kiroldegian egoten den hotz ikaragarria.

Ordainduko ziñukie telebisiñoko saio bat ikustearren?



Jolanda Palma

Oso saio berezia izan beharko litzateke. Dagoenarekin konformatzen naiz. Telebista gutxi ikusten dut eta, beraz, ez daukat ezer ordaintzeko asmorik.



Antonio Luarizaristi

Teleberri da gehixen ikusten dotena. Pelikulak etxat gustatzen. Pilota partiduak eta futbola be ikusten ditut. Eztaukat saio gehixaon biharrik.



Teo Delgado

Ez. Telebista kate guztiak publikoak izan beharko lirateke. Dohain ikusi beharko genituzke saio guztiak. Guzti hori multinazionala eta koak aberasteko da.



Gema Zubimendi

Parabolika txiki bat daukat etxean baina ez nuke ordainduko. Telebista gutxi ikusten dut baina kasu horretan, nahiago nuke pelikula bat alokatzea.



Iñigo Ugarte

Eneuke ezer ordainduko. ETB, TVE eta gainontzeko kataiekin nahikua daukat. Programaziño aldetik be besteik ez dot bihar. Eztot gehixao eskatzen.



Julio Bikuña

Ni neu ez naiz horren aldekoa. Edozer gauzogatik ordaindu beharra dago. Dana diruaren inguruan mugitzen da. Badaukagu beste gastu batzuk eta nahiko dira.

■ ikuspuntua: **asis iriondo**

Eskatzen hasita...



xak, Ocalan-ek, izan zituena arazuak?). Jakina, estatuko agintaririk eta Turkoen enbajadoriak oztopoak jarri nahi dotse Euskal

Herrixan biltzeko. Arrisku-tua ei da batzia.

Gasteizko Legabiltzarrak eztau erabakirik hartu, baiña erabakixak erabaki, eztaue lan makala! gure herrixan be txakurrak oinutsik!

Zeñiek azaldukotse Gasteiztik kilometro gutxira dagan enpresa batek bi urteko

epian milaka MK bonba saldukotsela Turkia-ko defentsa ministerioari?

Zeñiek azaldukotse Kurduei hemengo erakunde batzuk dirua emon dotsela hurbil dauan enpresa horri? Zeñiek eruango dittu Expal bisitatzera?

Zeñiek azaldukotse imajiñaren garaio-tan, garrantzitsuenaz ezala zer eitten dan, zer ikusten dan baizik? (Azken hau eztabe ikasi bihar, seguru). Honezkerok, kantuan jardundako umiak be badakixe eta!

"Ez gaude oso aberats diruz, ezta ere oiñetakoz, baiña buruz sano gabiltza, ta saldu nahi dogu gogoz". ■

"Santa Ageda bezpera dogu, Euskal Herriko eguna...". San Blasa jan, Santa Ageda batzea, eskia ta gaur Santa Ageda eskatzen hasita, egoera latzian bizi dien Kurduen ordekarixak be Gasteizko Legebiltzarian batzia eskatu dabe; euren lurraldietan ezin bildu eta herriz herri ibili bihar (gogoratzen ditugu Italiako imajiñak? Kurduen buruzagi-

■ asteko menua: **azpeitxi jatetxea**

Porru eta ganba budina



INAZIO BELDARRAIN
Azpeitxi jatetxeko sukaldaria

OSAGAIAK (8 lagunentzat)

- 4 porru
- Kilo erdi ganba (azalik barik)
- 200 gramo esnegain
- 8 arrautza oso
- Piperbeltz zuria
- Gatza
- Tomate egina, 200 gramo
- Moldea igurtzeko mantekila
- Ogi birrindu apur bat, moldea igurtzitzeko

PRESTAKETA

- Porruak oso ondo garbitu eta txiki-txiki egin.
- Lapiko batean, egosten ipini.
- Porruak ia egosita daudenean, ganbak gehitu eta pare bat minutu egosten eduki.
- Porruak eta ganbak egosita daudenean, lapikotik atera.
- Porruak eta ganbak (ur barik), 8 arrautza, esnegaina, tomatea, piperbeltz zuria eta gatza bol batean ipini eta batidoratik pasatu, purea egin arte.
- Molde guztia mantekilarekin igurtzi eta, ondoren, ogi birrinduarekin (apur bat) gauza bera egin.
- Lehenago egin dugun purea moldera bota eta labean sartu.
- Labea 200 gradura dagoela, moldea ordu eta laurden inguru eduki Maria bainuan.
- Labetik atera eta hozten laga.
- Mahaira ateratzeko, laminak egin eta mahonesa, saltsa arrosa eta letxuga orri batzuekin plateran ipini.

■ adituen esanetan

Eztarriko mina

JULIAN IGARTUA, *Otorrinolaringologoa*

Urte sasoi honetan, hotza dela eta, eztarriarekin arazo gehiago izaten du jendeak. Ikusi besterik ez dago zenbat jende egon den gripeak jota azken asteotan. Giro hotzak eta hezetasunak eragin zuzena izaten dute eztarrian. Elidakura txarragatik (fruta eta barazkiak ez jateagatik) defentsa aldetik baxu baldin bagaude, arazoak izateko arriskua handiagoa da. Beste faktore batzuk ere kontuan hartzekoak dira, hala nola berogailu sistema, aire egokitua, tabakoa eta hainbat lantegitako giroa.

Beti ere infekzio akutuen eta kronikoen artean bereiztu beharra dago. Faringitis akutuen kasuen sintomak ezta-

rriko mina, sukarra eta ondoeza izaten dira eta tratamendurako antibiotiko eta analgesiko antiinflamatorioak, arropak janzea edota esnea eztiarekin hartzea gomendatzen da. Infekzio kronikoak direnean, osteria, sintomak bestelakoak dira: irritazioa, azkura eta molestia sentazioa. Honelakoetan arnasketa arazok izaten dira tartean eta, beraz, sudur trenkada desbideratua dagoen edo polipoak eta bejetazioak dauden ikusi behar da. Amigdala handiak izatekotan operatu beharra izaten da askotan. Bestalde, honelakoetan A eta C bitaminak hartu (kiwiak biak ditu) eta sarritan gargarak egitea ondo etorriko da. **B**

■ bergarako gordailutik

ANGIOZAR

Imanol Sorondo

Angiozar auzo ederra eta egokia da: lurrez zabala, elizaren inguruan etxe mordoska, pilota tokia, eskola, batzarretarako gelak, taberna eta abar. Erreberean, txikiagoko auzo ugari dituen bakoitza bere ermitarekin eta, hantxe eta hemen, baserri ugariekin: Partelutti, Arexkurenaga... Bere izenak datan *zar* horrek pentsarazi egiten du: *Angio-zar*, *Kanpa-zar*, biak San Migel Goiangueruan zaindaritzeapean.

Baditu aipatu daitezkeen gauza bitxiak, eliza tartean. Parroki bezala azaltzen da beti, bere eskubide, erantzukizun, apaiz eta XVI. mendean idazten hasitako bataio liburuekin. Angiozarko elizak daukanaren inbentarioa ere idazten da 1602. urtean, angiozartar San Juan apaiz maisuaren garaian eta Elgetan idazkari zegoen Garraztegitar Pedro Ibanezek idazten; zehaztapen horren arabera, eliza inguratzen zuen elizpea bazegoen, eta sarrerako hiru ate: bereziena sarralde, gaur ezagutzen duguna, hamalduz jasotakoa, San Migel eta Ebanjelarien irudiekin. Sarrera hau 1556-1560 urteetan egin zen, Mendrakatar Andres hargin maisua azaltzen da egile bezala, eta badirudi 200 dukat kostatzen zela. Hots! ez dut uste egile honen izenik oraindaino esan denik, berri bat da, beraz. Beste ate bat iparraldean zeukan zurezko San Migelen irudi batekin; hirugarrena hegoaldekoa; hauek biak soilak, apaindurarik gabekoak. Oraindik bazegoen beste atetxo bat sakristira zuzeneko sarrateko.

Elizako dorrea zurezkoa zen, eta lau kanpai zituen. Eliz barruan lau altare zeuden: nagusia, San Migelen eskulturarekin; beste bat, ezker aldekoa, Ebanjelio aldera, Santa Katalinarekin; bien artean igeltsos egindako sagrarioa; hirugarren aldea eskubialdekoa, Maria Amarenarekin, eta laugarrena, San Pedrorenarekin. Denak zurezkoak, doratuak eta margo desberdinetakoak. Zurezkoa baita ere (hots, berriro!) elizako ganga, euskaldunentzat zurezko lan ugari jarraitzeko. **B**



Tauren maskota

Miel Ibarzabal Kukumako kidea **Tau Baskonia** saskibalo taldearen maskotari azken ikutuak ematen ari da egunotan. Maskota lantzeko **Karlos Izar** Taulko gerentearen deia jaso zuen Mielek eta lehendik zehaztutako diseinuari eutsi behar izan dio. Bozetoak buztinarekin egin ondoren, Gasteizko taldearen ordezkariak onespina eman zioten Mieli. Jarraian, igeltoarekin moldeak landu eta latex-arekin egin du **"Aker"** izeneko maskota, zapatila erraldoi eta guzti. Kopako txapeldunek Gasteizko Araba Arena pabilioian jokatzeko dituen partiduetan erabiliko da maskota berria. Hau bai fitxajea!!

Mariskadaren zozketa eta Etxanizi bisita

"Bergarara plataforma"k zapatuan antolatutako zozketan **657 zorbakia** izan zen saritua eta **Juan Luis Luarizaristik** eskuratu zuen saria. Argazkian "Luari" irabazitako mariskadaren ondoan. Bestalde, datorren eguakitzean, hilak 19, 19 urte beteko dira Jose Mari Etxaniz espetxeratu zutenetik. Hori dela eta, Puerto de Santa Mariako gartzelara joateko autobusa antolatuta da. Izen-ematea Pol-Polen, Arranon edota Kortazarren egin daiteke. Espetxeko zuzendariari Jose Mari-aren kasuaren gainean egindako dossiera eta joan zen uztailaren 18an Udaletxean onartutako mozioaren testua emango zaizkio.




Garako aurpegia

Maria Aginagalde Mendibil urtebeteko bergararra izan da zapatuan kaleratu zen **Gara** egunkari berriko irudia. Azken asteotan Gara egunkariak prentsan zein telebistan egindako iragarkietan ikusi ahal izan dugu. Irripartsu, sonbreru eta guzti, Gararen etorrera iragarri du Mariak. Argazki saioan primeran moldatu ei zen kamaren aurrean. Ez dago haur batena bezalako naturaltasunik...



Hitzaldi-dastaketa

San Antonioko **Gure Ametsa** elkarteak **ahate produktuak eta Nafarroako ardo apartsua** izan ziren aztergai egunean. Lehenbizi **Patxi Arakama** Katealde produktuen arduradunetako batek ahate produktuak nola egiten diren azaldu zuen eta horretarako ahate bat zatitu zuen Gure Ametsako bazkideen aurrean. **Mitxel Ibañezek**, berriz, bere familiak 1908tik hona Olorizen landu izan duen txanpainaren artisau prozesua esplikatu zuen. Bildutakoek Nafarroatik ekarritako produktuen kalitate bikaina konprobatzeko aukera izan zuten eta ondorengo afarian, berriz, 40 lagun izan ziren.



IPINTZA INSTITUTUA BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

*D eta B eredu
euskaldunak*

*1. zikloa: 12-14 urte
2. zikloa: 14-16 urte*

ETOR ZAITEZTE MATRIKULATZERA GURE IKASTETXERA OTSAILAREN 12ra ARTE

Helbidea: Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 20 82 -76 31 42

Ordutegia: goizez, 9:00-13:00; arratsaldez, 15:00-17:00

BALIABIDEAK

- Gela berezia.
 - Teknologia.
 - Informatika.
 - Adierazpen artistikoa.
 - Ikus-entzutekoa.
- Laguntza gelak.
- Elbarrituentzat egokitutako eraikina.
- Aniztasun trataera.

AUKERAKOEN ESKAINTZA ZABALA

- Frantsesa.
- Informatika.
- Tailerrak: Osasuna. Elikadura. Komunikabideak. Matematika. Asmakizunak. Bertsolaritza. Ikerketa. Prentsa tailerra. Eta abar.

ZERBITZUA

- Garraioa doan.
- Jantoki subentzionatua.
- Orientazio departamendua.
- Pedagogia terapeutikoa.


Zatozte gure ikastetxea barrutik ezagutzera, otsailaren 6an, zapatua


ATEAK ZABALIK

11:30etatik 13:30etara, 16:30etatik 18:30etara

BILERA INFORMATIBOA

Guraso eta ikasleei zuzendua, otsailaren 11n, 19:00etan Ipintza institutuko aretoan





Karibetik etorritako gero eta lagun gehiago dira gure artean. Bizimodua hobetu nahian etortzen dira baina herrimina gainditzea ez da erreza. Hala ere, orokorrean, gustora bizi dira hemen. Euskal Herrian urte dezente daramatzaten Dominikar Errepublikako hainbat lagun-en esperientzia ezagutu nahi izan dugu. Esperientzia gazi-gozoek kasu gehienetan...

Jaioterritik urrun

Dominikar Errepublikakoak gure artean

Marta Abreuk 28 urte ditu eta 10 urte daramatza Bergaran. Dominikar Errepublikatik hona etorri ahal izateko 1,2 milioi pezeta ordaindu behar izan zituen eta bere esanetan badira 2,5 milioi ordaindu behar izan dituztenak ere; "gure herrialdetik irtezeko baimena lortzea ez da batere erraza eta mafia asko dago tartean". Marta beste 14 lagunekin batera etorri zen Bergarara eta hasierako hilabeteetan prostituzioan aritu ziren. Gaur egun, berriz, Marta osintxuar batekin ezkondu dago eta hiru seme-alaba dituzte; "gaur egun nire gizona dena ezagutu nuen eta Itziarrera elkarrekin bizitzera joateko proposatu zidan. Handik urtebetera ezkondu ginen". Ezkontzeko baldintza bakarra jarri zion Martak bere gizonari, bere alaba nagusia Dominikar Errepublikatik ekartzea alegia. Elkarrekin beste bi seme izan dituzte, 6 urte eta 2 urte dituztenak eta

gaur egun Osintxun bizi dira. Martaren ama eta bi ahizpak ere Gasteizen dira. Ahizpetako batek Errepublikan dagoen bere gizona hona ekartzeko itxaropena dauka.

IRAGANAREN ZAMA

Martak ez dauka Errepublikara bueltatzeko asmorik; "bizitza ez da batere erreza gure herrialdean, elikadura aldeetik ere gabezia asko dago eta han igarotako urteetan ez nuen esperientzia onik izan. Errepublikako egoerarekin konparatuz hemen askoz hobeto nago; gizonaren familiak ere primeran tratatu nau". Hala ere, gure artean ondo bizi arren arrazismo pitin bat somatzen du jendearengan; "badirudi beltza izanik, nire iraganagatik markatuta nagoela. Duela urte batzuk prostituzioan aritu izanak mesfidantza pizten du jendearengan eta horrek arazo ugari ekarri dit. Lagunekin diskoteka batera baldin

banoa eta ordu txikietan etortzen baina auzolagunak berehala hasten dira esaten putetxe batean izan naizela. Auzoko hainbat lagunekin ere harremanak nituela zabaldu zen Osintxun eta zurrumurru horiek min handia egin didate. Senarraren lagunei esames horietatik defenditu ez izana aurpegira bota nien eta orain koadrilako gizonak ez digute barbarik egiten... Bigarren seme-alaba izan baino lehen ere nerbioetatik jota ibili nintzen haurraren koloreaz apustuak egin zirela jakin nuenean, beltza edo zuria etorriko ote zen. Ez dut jende guztia txarra denik esan nahi. Badago jende jatorra baita, baina sekulako amorrua ematen dit jendeak pentsatzeak nire iraganagatik ezin dudala bizimodu zintzorik izan".

HERRIKIDEAK NONAHI

Ana Mercedes Tavarezek, Martaren lagunak, zurrumurruei kasorik ez egiteko




"Oso atsegina da herrikideekin biltzea. Gure arazoak ahaztu eta primeran pasatzen dugu" ANA MERCEDES

esaten dio. Santo Domingokoa izatez, Ana Mercedes (50 urte) 1985ean etorri zen. Garai batean Mekolalden bizi izan zen eta gaur egun gizonarekin eta Leopoldo semearekin Aretxabaletan bizi da. Gizona Salamancakoa da baina Arrasaten lana aurkitu ondoren Aretxabaletan erosi zuten pisua. Ezkondu ere bertan ezkondu ziren. Sasoi batean Aretxabaletako Udaleko Ongizate Zerbitzuan, etxez etxeko laguntzetan ibili zen lanean Ana Mercedes baina gaur

egun lanik gabe dago. Bere bizilagunekin Martak baino esperientzia hobea duela diosku; "leku guztietan ondo tratatu naute eta oso harreman ona daukat nire auzokoekin eta, orokorrean, Aretxabaletako herritarrekin. Udaletxean ere oso gustora jardun nuen lanean, baina euskara ez jakitea oztopo bat zen nire lanerako eta orain langabezian nago. Gustatuko litzaidake egunean bizipahiru ordu lan egitea, baina momentuz ez naiz kexatzen, eta ez zait ezer

"Karibetik etortzean nire bizimodua guztiz aldatu zen bat batean. Kosta egin zitzaidan egokitzea" LEOPOLDO



falta". Duela urte batzuk Bergaran bizi izan zen Ana Mercedes; "Bergaran urte eta erdi eman nuen eta semea 12 urterekin etorri zen gurekin. Semea etorri eta handik gutxira Aretxabaletara joan ginen bizitzera eta aldaketa onerako izan da, Mekolden bizitzea mendian, baserri baten bizitzea bezala baitzen. Orain gustorago gaude eta Bergarara gutxitan etortzen naiz, Martaren familia bisitatzea noizean behin...". Karibe aldetik etorri eta Euskal Herrian bizi diren herrikideekin elkartzeko dira askotan; "oso atsegina da herrikideekin biltzea eta gure herrialdeko musika jartzeko duten diskoteketara joaten gara normalean. Leo nire semea disc-jockey lanetan ibili izan da hainbat tokitan eta gustatzen zaigu bera egoten den tokietara joatea. Orduan gure arazoak ahaztu eta dantzan primeran pasatzen dugu".

Marta Abreu duela 10 bat urte etorri zen Bergarara eta handik gutxira euskaldun batekin ezkondu zen. Osintxun bizi dira eta hiru seme-alaba dituzte.



LAN BILA

Aretxabaletara bizitzera joan baino lehen, Leopoldo Roman (24 urte), Ana Mercedesen semea, Bergarako San Martin ikastetxean ibili zen ikasten hila-bete batzuetan orain dela 12 urte. Karibetik honako aldaketa izugarria iruditu zitzaion; "nire bizimodua guztiz aldatu zen bat batean eta, hain gaztea izanik orduan, hasieran kosta egin zitzaidan hemengo bizimodura egokitzea. Orain arte ostalaritzan lan egin izan dut baina ere eta azkenaldian musika latinoan jartzeko duten lokaletan ibili naiz, disc-jockey lanetan. Gasteizeko Cadena 100



*"Amorrua ematen dit jendeak pentsa-
tzeak nire iraganagatik ezin dudala
bizimodu zintzorik izan"* MARTA



*"Zazpi urterako etorri nintzen hona eta
nire gizona jubilatzen denean
itzuliko gara Errepublikara"* JOVERIS

emisoran ere musikari buruzko progra-
ma bat izan nuen sasoi batean eta hiri-
buruetan dauden salsa eta merenge lo-
kaletatik ere deitu izan didate. Orain
langabezian nago eta lantegiren batean
lan egitea gustatuko litzaidake. Lana to-
patzeko orduan ez dut uste arraza ez-
berdinekoa izateagatik arazorik izango
dudanik. Ezagutzen ditudan herrikide-
ek, behintzat, ez dute horrelakorik ja-
san eta nire amaren esperientzia ere
zentzu horretan positiboa da. Ondo
gertatuta egoteak garrantzi handiagoa
dauka. Egia da hona etorri nintzenen
jendeak harriduraz begiratzen ninduela
baina normala ikusten dut, hemengo

jendea orduan ez baitzegoen beltzak
ikustera ohituta".

OZTOPOAK

Joveris Sosak (29 urte) somatu du arra-
zismoa lana bilatzeko orduan; "nire he-
rrialdean hainbat hotel garrantzitsutan
ibili nintzen lanean eta hemen, berriz,
arazoak izan ditut beltza izateagatik.
Behin horixe esan zidaten hain zuzen,
beltzegia nintzela ostalaritzan jardute-
ko. Ba, koloreari begiratzen badiote
egia da beltza naizela, baina esperien-
tzia ere badaukat, eta horri ez diote
hainbesteko garrantzia ematen, itxu-
raz... Kalean ere somatzen dut jendea-

ren kontrola eta, askotan, ezagutu ba-
rik ere prostituta bat izango bazina mo-
duan tratatzen zaituzte. Gizonek kalean
gelditzen zaituzte eta, normalean, ez da
hitz polit bat esateko...". Joveris Domi-
nikar Errepublikan ezagututako euskal-
dun batekin ezkondu dago eta Are-
txabaletan bizi da. Errepublikan bi se-
me laga zituen, beraien aitaren eta Jo-
verisen amaren ardurapean. Faltan bo-
tatzen ditu baina ahal duenean bere
jaioterrira itzultzeko asmoa dauka; "ha-
siera batean zazpi urterako etorri nin-
tzen hona eta nire gizona (56 urte ditu)
jubilatzen denean hara joango gara be-
rriz". **B**

ARREGUI, E.M.



AROLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urtega 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38



**Amodiozko
gutunak
1993-1998**
liburua salgai


- ▶ 21 amodiozko gutun eta 150 piropon
- ▶ Liburudenda nagusienetan salgai
- ▶ 1000 pezeta



**San Balentin
egunerako opari egokiena!**

**POL-POL
Taberna**

☎ 943 76 07 78





Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

- 09:00: Amilotx-Ion Autoak
- 10:00: La Juve-Igandekoak
- 12:00: Artusamak-Fac
- 13:00: Agirrebeña-Matxakategi

- Igandekoak
- Amilotx
- Agirrebeña
- Artusamak

ZAPATUAN KANPOAN

- 16:00: Usoa-Ezinleike
- 17:00: Arbe Kirolak-Bayer
- 18:00: Xurruapak-Guadalest

- Bayer
- Xurruapak
- Arbe

DOMEKAN BARRUAN

- 09:30: Patatus-Agiñaspi
- 16:00: Buya-Amozkibar
- 17:00: Irubide Jatetxea-HHH
- 18:00: Ufala-Etengabe
- 19:00: Urrutxurtu-Komando Piperrak
- 20:00: SLP-Mo(ko)lotov

- Txipiron
- Irubide
- Ufala
- Urrutxurtu
- SLP
- K. Piperrak

DOMEKAN KANPOAN

- 10:30: Sirimiri Eri-Txipiron
- 11:30: Ortzí-Errotagain
- 12:30: Mongatxurak-Pagomendi
- 16:00: Bar Canalejas-Shaktale
- 17:00: Azpeitxi Jatetxea-OH Zerezos

- Ortzí
- Mongatx.
- Errotagain
- Azpeitxi
- Canalejas

argi!

Zenbaki sarituak

Lagunak Areto Futbol elkarteak egindako zozketan atera ziren zenbaki sarituak honakoak izan ziren: lehendabiziko zenbaki saritua 367 izan zen. Saria, Azpeitxi jatetxean bi pertsonarendako afaria da; bigarren zenbaki saritua, 213 eta saria, Agirrebeña jatetxean bi pertsonarendako afaria. Sarituak izan direnei, telefono hauetara deitzea eskatzen zaie: 943.764606 (Jon) edo 943.765000 (Pedro).

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	28	13
2. A Ze Flaxa Etxagi	23	13
3. Errotagain	23	13
4. Pagomendi	20	13
5. Ortzí	20	13
6. Bar Canalejas	17	13
7. Bildurbarek Opel/Lam	15	13
8. Mongatxurak	14	13
9. Jauja OH Zerezos	12	13
10. Shaktale	10	13

2. maila

	P	J
1. Artusamak	13	5
2. Bayer	12	5
3. FAC	11	5
4. Arbe Kirolak	10	5
5. Xurruapak	7	4
6. Tom Cat Argandolas	7	5
7. Sirimiri Eri	5	5
8. Ezinleike	5	5
9. Guadalest	3	5
10. Uve Bikoitza	3	5
11. Usoa	3	5
12. Txipiron	2	4

3. maila

	P	J
1. Moskis	15	5
2. Ari Ari	12	5
3. Urrutxurtu	10	4
4. Jakina Patxaran Team	9	4
5. Ufala	7	4
6. Irubide Jatetxea	6	4
7. Agirrebeña Jatetxea	4	4
8. Matxakategi	4	5
9. Etengabe	3	4
10. Komando Piperrak	3	5
11. HHH	0	5

4. maila

	P	J
1. Mo(ko)lotov	12	5
2. Amozkibar	10	5
3. La Juve	9	5
4. Pinturas Bergara	7	5
5. Igandekoak	5	5
6. Ion Autoak	4	5
7. Agiñaspi	4	5
8. SLP	3	5
9. Buya	3	5
10. Patatus	3	5
11. Amilotx	3	5

jokoz kanpo



AITOR ZABALETA
Etengabe

- G. Nola ikusten duzu zure taldea?
- E. Nahiko ondo baina ez dugu zorte handirik izan.
- G. Zenbagarren urtea txapelketan?
- E. Hirugarrena.
- G. Zein postutan jokatzan duzu?
- E. Atezaina naiz.
- G. Mutilen federatu taldea ere entrenatzen duzu?
- E. Bai.
- G. Zer dela eta?
- E. Hasieran, federatutako nesken taldeko atezainak entrenatzen hasi nintzen. Mutilen talde federatua entrenatzen zutenek ez zuten jarraitzeko asmorik eta neuri proposatu zidaten. Taktikaz arduratzen naiz.
- G. Etengabe-n eta talde federatuan aritzeko denbora daukazu?
- E. Bai. Normalean partidu guztiak koordinatzen ditugu.
- G. Areto Futbolaren eta futbitoaren artean ezberdintasunik badago?
- E. Txapelketan bost jokalarik eta atezainarekin jokatzan da eta areto futbolearen bost jokalarik daude atezaina barne. Nire ustez, txapelketa areto futboleko arautegian oinarritu beharko litzateke.
- G. Atsegin duzun kirolari bat?
- E. Realeko Alberto atezaina.

gora eta behera



Ezustekoa eta gol ugari

Matxakategi, Amilotx eta Agiñaspi taldeek ezustekoa eman zuten asteburuan. Hiru talde hauek nahiko eskas ibili dira orain arte baina jardunaldian zuzenrealeko Igandekoak, Pinturas Bergara eta Irubide Jatetxea taldeei irabazi zuten.



Zigorrek

La Juvek lau puntu gutxiago ditu. Hiru puntu, partidura hiru jokalarik bakarrik agertu zirelako kendu zaizkio. Ez dela La Juve taldea jokalarik gabe agertzen oren lehendabiziko aldia eta horrek ere puntu bat gutxiago suposatzen dio. Pinturas Bergarak 2 puntu gutxiago izango ditu arbitratzera berandu iristeagatik eta arbitratzen epaile bakarra egoteagatik.

emaitzak

Mo(ko)lotov-La Juve	34
Ion Autoak-Patatus	51
Ezinleike-Artusamak	11
HHH-Urrutxurtu	2-10
Matxakategi-Irubide	10-2
Bayer-Tom Cat Argandolas	54
Amozkibar-SLP	64
Guadalest-Arbe Kirolak	27
Fac-Sirimiri Eri	11
Uve Bikoitza-Usoa	4-13
Bar Canalejas-Pagomendi	44
Igandekoak-Amilotx	24
Etengabe-Moskis	14
Agiñaspi-Pinturas Bergara	13-3
Jakina Patxaran Team-Ari Ari	34
Komando Piperrak-Ufala	1-11

kronikak


**Futbola
Jubenilek
geroz eta
gol gehiago**

Joan zen asteburuan, BKEko futbol saileko talde irabazle bakarra, lehen mailako jubenila izan zen. Zelairearen mutilek Arrasateren kontrako partidua 8-0 irabazi zuten. Derby bikaina, beraz. Bergararrek ez zioten Arrasateri inongo aukerarik eman.

Golegileei dagokienez, Unai Rollanek hiru gol sartu zituen, Inaki Mujikak bi, Aranak beste bi eta Dovaok bat. Gol zaparrada ederra jaso zuten Arrasatekoek. Jubenilak denboraldi bikaina egiten ari dira. Futbol ona erakustez gain, partidua entretengarriak eskaintzen dituzte. Horregatik, joan zen asteburuan bezala, gero eta ikusle gehiago gerturatzen da partiduetara.


**Eskubaloia
poliki-poliki
sailkapenean
gora**

Iraundi Bergara taldeak 24-27 irabazi zion joan zen asteburuan Loiola taldeari. Partidu osoan zehar Lijorenak aurretik joan ziren markagailuan eta partiduko azken minutuetan Loiolakoak gerturatzea lortu bazuten ere, 3 goleko aldearekin irabaztea lortu zuten.

Taldeak, orokorrean, lan ona egin zuen, nahiz eta hutsune nabarietak defentsa lanetan igarri. Taldea une ona igarotzen ari da. Asteburuan partidua garrantzitsua jokatu dute Arrateren kontra. Eibartarrak bigarren daude sailkapenean eta bergararrak laugarren. Entrenatzaileak adierazi duenez, partidua irabazteko prestatuta daude eta irabaztea espero dute.


**Saskibaloia
Jubenilek
emaitza
eskasa**

Saskibaloiko Jubenil mailako mutilek ez zuten Intxaurrendoko C.B Internacional taldearen kontrako norgehiagoka irabazten jakin. Taldeko bi jokalaririk lezioak jota bazeuden ere, zortzi jokalaririk izan zituen Inigo Martinek kantxaratzeko moduan etam hala ere, Intxaurrendokoak nagusitu ziren partiduan.

Lehendabiziko zatia nahiko berdinduta joan zen, nahiz eta Intxaurrendokoak atsedenaldira 10 puntuko aldearekin joan. Bigarren zatia hasi eta bergararrek alde gutxitzea lortu zuten baina azken minutuetan Bergarakoen defentsak kale egin eta aurkariak saskiratze ugari egitea lortu zuten partidua erreztasunez irabaziz.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Lazkao

Preferentea

Zapatua. 16:15. Agorrosin

Bergara-Soraluze

Bigarren mailako jubenila

Zapatua. 11:45. Ipintza

Bergara-Aurrera Ondarroa

Lehen mailako kadeteak

Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Zumaiako

Bigarren mailako kadeteak

Domeka. 11:30. Ipintza

SASKIBALOIA

Bolsos Bergara-

Colegio Bizkaia

Senior maila

Zapatua. 19:00. Kiroldegia

PILOTA

DEBA ARROKO TXAPELKETA

Bergara-Arrasate

Kadete eta senior maila

Eguakitza. 19:30. Pilotalekua

PROFESIONALAK

Euskal Herriko Txapelketa

• Ariznabarreta eta Arretxe

Tirapu eta Armendariz

Binaka

• Agirre eta Zearra

Barberito VI eta Taberna

Banaka

• Rai-Nalda III

Zapatua. 16:45. Pilotalekua

ESKUBALOIA

Bergara-Beasain

Jubenil mailako mutilak

Domeka. 11:00. Kiroldegia

Bergara-Arrate

Senior maila

Domeka. 12:15. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergarako Lagunak-

Karmelo Etxegarai

Jubenil mailako mutilak

Zapatua. 16:30. Kiroldegia

Bergarako Lagunak-

Hegoalde Benta Aldea

Neskak

Zapatua. 17:30. Kiroldegia

JOSEBA LOPEZ / Motokrosaria

"Zortzi urtetik nabil motorrarekin"

Betidanik izan da motorzalea. Hamabi urte zituela Bergara inguruan antolatzen ziren txapelketetan hasi zen. Joan zen zapatuan, Euskadiko motokros txapel-dun ordearen saria jaso zuen Donostian.

G. Noiz hartu zenuen motorra lehendabiziko aldiz?

E. Etxean betidanik egon da motor zaletasuna aitaren partez batez ere eta motorra txikitatik izan dugu. 8 urterekin motor txiki bat gidatzen hasi nintzen.

G. Txapelketa ugari lortu dituzu.

E. Euskadiko txapelketa urtero korritzen dut. Saria zapatuan jaso nuen baina txapelketa

urrian amaitu zen.

G. Estatu mailan aritu zara?

E. Bai. Urtero Espainiako txapelketarako puntuagarria den jardunaldi bat edo beste jokatzen dut. Duela lau urte lasterketa guztiak korritu nituen. Sailkatzea besterik ez nuen lortu. Maila oso altua dago estatu mailan.

G. Jadanik hasi zara aurtengo txapelketarako prestatzen?

E. Jendeak motokrosarako prestatu beharra ez dagoela usate du eta ez da horrela. Kirola egin beharra dago. Gimansiora joan, korrika egin... Egia esan, ez daukat kirola egiteko denbora handirik. Motokrosa oso gustokoa daukat eta zaletasun horri esker ari naiz korritzen. Kiro-


letik bizitzea oso nekeza da, are eta gehiago motokrosaren kasuan.

G. Zein motor daukazu orain?

E. 250 zilindroko Husqvarna.

G. Gustokoa duzun motokrosari bat?

E. Stefan Evers, munduko txapel-duna.



Mendiko bizikleta irteerak, Bergarako Txirrindulari Elkarteak antolatuta

Lehendabiziko irteera otsailaren 14rako iragarri da

Udaberri eta uda partean mendiko bizikleta hartu eta ibilaldiak egiteko ohitura handia dago. Gorla, Pol-Pol eta Angiozar besteak beste, ohizko bide bihurtu dira bizikleta eta mendia gustoko dutenentzat. Otsailetik aurrera, Bergarako Txirrindulari Elkarteak antolatutako ibilaldiei esker zaletuek toki berriak ezagutzeko aukera izango dute.

Lehendabiziko aldiz, Bergarako Txirrindulari Elkarteak antolatutako mountain bike irteerak izango dira Bergaran. Bergarako Txirrindulari Elkarteak Jesus Martín eta Albisua izango dira irteeren arduradun nagusiak. Jesusek adierazi digunez, "Bergaran zaletasun handia dago. Uda garaian batez ere, mendian zehar jende asko ibiltzen da. Askok bakarrik egiten dituzte ibilaldiak eta gehienetan zirkuitu bera egiteko ohitura dago. Bakarrik ibiltzea arriskutsua da, mendian zehar edozein ezusteko suertatu daiteke eta. Norbaitekin joanda horrelakoak ekiditzea errazagoa izaten da. Erori edo txirrinuak arazoren bat izatea maiz gertatzen den gauza da eta kontu handia izan beharra dago. Hori dela eta, bakarrik ibiltzen diren txirrindulariak inguruko zirkuituak egiten dituzte badaezpada".

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, Bergarako Txirrindulari Elkarteak irtee-



Hilean behin egingo dira Txirrindulari Elkarteak antolatutako bizikleta irteerak.

rak antolatuko ditu baina, era berean, argi utzi nahi du ez duela bere gain hartzen irteeretan gertatu daitezkeen arazo erantzukizunik.

Deialdi hauen helburu nagusia, mountain bike-a gustoko dutenen artean tal-

"Lehendabizi taldea finkatzeko asmoa dugu baina txapelketa gogoia ere badago"

de bat eratzea da. Bestalde, toki eta ibilbide berriak ezagutzeko aukera egongo da baita ere. Martín eta Albisua arduratuko dira ibilbide berriak finkatzeaz. Lehendabiziko irteera, Bergara, Soraluze, Elgeta, Hirutontorreta, San Kristobal eta Bergara artean izango da otsailaren 14an. Irteerak adin mugarik gabeko jendeari zuzenduta daude. "Poliki poliki hasteko asmoa badago ere, gero eta ibilbide zailtxoagoak izango dira. Hauen artean Donostiaraino joateko asmoa dago, baina oraindik zehaztu gabe daukagu. Irteera honek, sei edo zazpi ordu iraungo luke. Gerora begira, txirrindularien artean

maila ezberdinak ere zehaztu daitezke baina momentuz helburu nagusia zaletuek guztiak irteera hauen bitartez elkartzea da. Irteera hauek erantzun ona izango dutela uste dut. Bertara hurbildu nahi dutenek, egunetan bertan iragarritako lekuan eta orduan azaltzea besterik ez dute egin behar".

Etorkizunean, Bergara mailako mountain bike txapelketak antolatzea pentsatu da". Interesgarria izango litzateke, orain arte ez baita horrelakorik egin. Herrian dagoen zaletasuna bultzatzeko balioko luke. Gu gero antolatzaile lanetan aritzea prest gaude. **B**

ESKOLA KIROLA

Karteldegia

FUTBOLA

INFANTIL MAILAKO MUTILAK
09:30: M. Lagundia-Aranzadi
Zapatuan, Ipintzan

ESKUBALOA

INFANTIL MAILAKO MUTILAK
12:00: Torrebaso-Aranzadi
Zapatuan, Almenen
INFANTIL MAILAKO NESKAK
10:30: Itzio-Aranzadi
ALEBIN MAILAKO MUTILAK
10:30: Aranzadi 12-Aranzadi 11
10:30: M. Lagundia B-Aranzadi 10
11:30: Aranzadi 13-M. Lagundia A
11:30: Aranzadi 9-Elgeta
Zapatuan, Aranzadi Ikastolan
ALEBIN MAILAKO NESKAK
12:30: Elgeta-Aranzadi 15
12:30: M. Lagundia-Aranzadi 14
Zapatuan, Aranzadi Ikastolan
(Atsedena Antzuola)

PILOTA

BENJAMIN MAILA
09:30: San Martin A, Aranzadi 1,
M. Lagundia B
10:30: San Martin B, Aranzadi 3,
M. Lagundia D
11:30: Aranzadi 5, Aranzadi 6,
M. Lagundia A
12:30: Aranzadi 2, Aranzadi 4,
M. Lagundia E
Zapatuan, Zabalotaegiko
Pilotalekuan

Nesken futbito txapelketarako deialdia

Urtero egiten den bezala, Bergarako Nesken Futbito Txapelketa abian jartzeko asmoa dago. Guzti honetaz hitz egiteko, hilaren 16an arratsaldeko 19:00etan bilera izango da Kultur Etxean. Interesatuta dauden neskek Pol-Pol, Ziripot, Etxagi eta Oila gorran eman dezakete izena.

Bergarak hiru sari eraman zituen Deba Garaiko Challenge-an

Joan zen zapatuan banatu ziren 1998ko Kirol Txapelketen zirkuituetako sariak. Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Oñatiko kirol elkarteek antolatu du Challengea. Bergarako kirolarien artean, Patxi Vallejo eta Xabi Albisua frontenisean, Jon Alberdi eta Iñigo Agirrebeña palan eta Mikel Etxaniz eta Ina Iureta palan saritu zituzten. Horretaz gain, 1999ko denboraldiari dagokion eskaintza aurkeztu zen. Pasa den itzulian pala, tenisa, frontenisa eta squasha izan ziren aukeraturako kirolak. Aurten, esku pilota ere jokatuko da.

Herri bakoitzeko txapelketak bi fase izango ditu. Lehen liga erara jokatu da, itzuli bakarrarekin. Bigarrena berriz, kopa edo kanpo-



Bergara, Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako sarituak.

raketa modura jokatuko da. Herri txapelketa bakoitzak 8 eta 10 asteko iraupena izango du. Herriko txapelketetan lortutako emaitzen arabera sailkapen bat egingo da eta ondoren, herri guztietako txapelketak amaituta eta sailkapenak

eginda daudenean bailarakoak sortuko da. Bergarari dagokionez, martxo eta apirila bitartean frontenis txapelketa jokatuko da, maiatza eta ekaina bitartean pala, urria eta azaroa bitartean tenisa eta pilota, azaroa eta Abendua bitartean.

Arku tiraketan bergararrak 8. eta 9. postuetan

Domekan jokatu zen Gipuzkoako Arku Titaketa Txapelketan, Fernando Markina zortzigarren sailkatu zen eta Jose Luis Arietaleanizbeaskoak, berriz, bederatzigarren postua eskuratu zuen. 32 gipuzkoar bildu ziren Labegaraieta kiroldegian. Asteburuan, bergarrek Euskadiko Txapelketa jokatuko dute Gasteizen.



Aranzeta eta Gutierrez Gipuzkoako pilota txapeldun

Joan zen zapatuan, BKEko Aranzeta eta Gutierrez pilotariek Gipuzkoako afizionatuen pilota finala 22-12 irabazi zuten, Martin eta Maiztegi Oñati taldeko pilotarien kontra Zumarragan. Bestalde, BKEko pilotariek Arrasateren kontra arituko dira eguakitzean Bergarako Udal Pilotalekuan. Kadete mailan, Aranburu eta Herran izango dira eta senior mailan, berriz, Samaniego eta Gutierrez.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Osintxun pisua salgai.
943 76 49 74.

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Osintxun pisua salgai.
939 93 68 41.

Pisu amueblatua San Antonion. 943 76 56 20.

Aranerrekana pisua.
943 76 06 52.

S. Arrietan pisua salgai.
Deitu 943 76 47 86 telefonora.

Bolu. 943 76 01 80.

Fraiskozurin pisua salgai. 943 76 15 40.

San Lorentzo.
943 76 48 39.

Masterreka.
943 76 17 49 (gauetz)

Apartamentua Arrurriagan. Iggogailuarekin. Berri-berria. 619 802 606.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamentu amueblatua Espoioian.
Deitu 943 76 55 26 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatua
Galduta
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN HARTZEKO

Bi neskak pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. Deitu 943 76 71 93 telefonora.

Etxe konpartituan gela bat hartuko nuke. 943 76 21 48.

Aretxabeletako pisu batean logelak alokairuan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artza-mendin. 943 76 06 25.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Garaje bikoitza S. Lorentzon: 943 76 58 00.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Aranerrekana. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

Ibargarai. 943 15 15 81.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 27 22.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

ERRENTAN EMATEKO

Poligonoa. 943 76 32 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 93 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

177 m²ko pabiloi indus-

triala Amillagan.
943 76 35 09.

Arte lanak egiteko lokala aproposa konpartituko nuke Arrasateetik gertu. 943 71 42 86.

4. LANA

ESKAITZAK

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulegoin lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 30.

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ara)

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska edadetuak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Erizain titulatuak gaurak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak egin edo umeak zainduko dituzte egun erdiz. 943 76 25 91.

Neskak etxeko edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

hi blai

Kontzertua Otsailaren 6an 23:30etan
NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

GURIA Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

PERTSONA GAZTEA
behar da taberna batean lan egiteko
943 76 59 19

SUKALDERAKO GARBITZAILEA
eta
SUKALDARIA
behar dira
Tf. 943 76 41 06

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Espereziadun neskek, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 72 31.

ESKAERAK

Haurrak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 31 11 (19:00etatik aurrera).

Pertsona euskalduna behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 08 06.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresari-tza lehen mailako matematika klaseak ematen ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

Ingenieritzan diplomatuak OHO eta BBBko klaseak ematen ditu. 943 76 70 44.

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen

ditu. Deitu 943 76 10 17 telefonora (Rosa).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Ford Scort 1100. SS-U. Bolante deportiboa opari. 125.000 pezeta. 943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera onean. 943 71 44 45.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Opel Corsa 1500 diesel. SS-AT. 943 78 71 12.

Alfa 33 QV (BI-AM). 100.000 PTA. 943 76 07 50.

Renault 5 Turbo kotxea salgai. 943 76 38 84.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea (SS-W) prezio onean salgai. 943 76 63 29.

Peugeot 205 GTI. 6 urte. Extrak. 943 72 53 78.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer txakurkumeak. Txertatuak. Pedigree-arekin. 943 85 32 44.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

8. DENETARIK

SALDU

Sega Saturn bideo kontsola salgai. 6 joku. 943 76 40 00 (Mikel).

Peugeot 309 kotxeko aluminiozko hagnak salgai. 930 687 635.

Eskiko materiala salgai: Dynastar taula, Tyrolia lotzekoak, Koflach botak (44-45 zka.) eta bas-toiak. 943 76 25 54.

"Gernika"ren narruzko koadroa salgai (100x50 cm). Interesatuak Arrano tabernan galdetu.

Tresiloa, bi siloi eta egongelako mahaia prezio onean salgai. 943 76 31 21 (13:00-15:30).

Sony irratia, Nad anplifikadorea eta Beyma bafleak salgai. 943 88 73 13.

Pentium-multimedia ordenagailua, inpresora eta programak. 907 34 46 58.

Bi oheko gazte logela. 943 78 25 85.

"Mendiz" bizikleta. Shinmano 600. 943 76 38 79.

150 litroko termo elektriko eta bi akumula-dore. 943 76 44 96.

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Botoidun akordeoia salgai. 943 76 32 95.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Kotxeko bi gurpil berri 155/70 hagnekin eta orekatuak. 6.500 pta. 943 76 32 31 (Iñaki).

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskatilarena) saltzen ditut. Berriak. 943 76 14 70.

Sega Master Sistem 2 kontsola (6 joku) salgai. 943 76 47 82.

EROSI

Faxa erosiko nuke prezio onean. 943 76 08 19.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KOMERTZIALA
Gasteiz. 14681/4

KOMERTZIALA
Bilbo. 15413/4

ZUZENDARIA /GERENTEA
Bidasoa. 15465/3

MEKANIKARI-DOITZAILEA
Donostia. 15918/2

SOLDATZAILEA
Atxondo. 16064/3

ASEGURUTARAKO LANGILEA
Donostia. 16098/2

MEKANIKARI-TORNULARIA
Donostia. 16132/1

BALET KLASIKORA-KO IRAKASLEA
Bilbo. 16174/2

IGELTSEROA
Zaldibar. 16309/2

LH-II edo INJINERU TEKNIKOAK
Arabar Lautada. 16233/2

AIRE EGOKITUAREN MUNTATZAILEA
Galdakoa. 16281/3

TELEFONOGUNE INSTALATZAILEA
Bilbo. 16297/5

KALITATE-KONTROLERAKO TEKNIKARIA
Arabar Lautada. 16344/3

GASOLINA-SALTZAILEA
Gasteiz. 16463/3

CNC TORNURAKO LANGILEA
Durangaldea. 16483/1

KOMERTZIALA
Ibai ezkerrekoa. 16549/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

NESKA behar da jantokian zerbitzeko

Tf. 943 76 20 29

Motorra daukan mutil gaztea behar da etxez-etxeko banaketarako

Tf. 943 76 72 00
11:00-15:00

IKUSBI

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

EUSKO JAURLARITZA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Otaola hiribidea 29, EIBAR

1998/99 IKASTURTERAKO MATRIKULA LIBREA

Kartazalak jasotzea otsailaren 1etik 19ra izango da.
NORTASUN AGIRIA BEHARREZKO DA.
Informazio gehiago 943 20 06 18 telefonon.

ZABOR BILKETA ZERBITZURAKO TXOFER BAT kontratatu behar da behin-behinerako.

Instantziak eta dokumentazio osagarria OTSAILAREN 10eko 15:00ak BAINO LEHEN Deba Garaiko Mankomunitatean aurkeztu beharko dira.

Deba Garaiko Mankomunitatea:
Arrasate pasealekua 5, behe. ARRASATE.
Tf. 943 79 33 89 / 99.



Las Brujas, Hi Blai, Fucking Wath!, Baron Rojo, Mikel Urdangarin..., asteburu musikal bikaina

Eta datorren eguakitzera, June of 44 talde ipamerikarra iragarrita dago

Era askotako musika entzuteko aukera izango dugu asteburuan Bergaran. Infernukua, Pol-Pol eta Nahikari tabernetan eta Jam aretoan, Las Brujas, Mutuo Desprecio, Hi Blai, Fucking What!, Baron Rojo eta Mikel Urdangarin-en kantuekin gozatu ahal izango dugu. Bestalde, datorren eguakitzean, hilak 12, June Of 44 eta Shanti RD taldeak izango dira Jam-en.

Eguakitzean Mutuo Desprecio Pol-Polen (11:00) eta Las Brujas Infernukuan (12:30) izango dira. Javier Sun eta Señor No taldeko Xabi dira Las Brujas.



Fucking What!

Lehen ere egonak dira Bergaran eta eguakitzean, berriz ere, saio akustiko beroa eskainiko digute seguruen.

Zapatutako, bestalde, Hi Blai Nahikarin (11:30) eta Fucking What! eta Baron Rojo Jam aretoan (10:00) iragarrita daude. Hi Blai bikotea Aitor Unanue eta Juan Zulaika donostiarrek osatzen dute, biak Baila Nelly taldean aritutakoak. Sanchis y Jocano, Scooters, Señor No edota Mal de ojo taldeetan ere ibiliak dira. Kitarra akustikoak baino, zatratsuagoak nahiago dutenak, Jam-era hurbildu daitezke (1.200 PTA aurretik eta 1.500 bertan), Fucking Wath! eta Baron Rojo ikustera.

FUCKING WHAT! + BARON ROJO

Fucking What! Bergarako talderik beterranoenetakoa da. Poti (bateria), Elortza

(bajua eta ahotsa) eta Kapi eta Gorka (kitarra) osatzen dute taldea eta urteak daramatzate elkarrekin. Baron Rojorekin batera zuzenean joteko eskariari ezin ezetz esan, eta azken egunotan jo eta ke aritu dira entsaizten. Zapatuan 40 bat minutuko saioa eskainiko dute; euren bi kantu eta beste talde batzuen bertsiok: Lynird Sky-nird, Metallica, Obus, Baron Rojo...



Mikel Urdangarin

Baron Rojok 20 bat urte daramatza bidean. talde honek 80ko hamarkadako lehen zatian ezagutu zuen osperik handiena. Hala ere, duda barik estatuko heavy-rock talderik indartsu eta ezagunena da eta nazioarte mailan ere ezagutu du ospea, ez bakarrik Latinamerikan, baita Ingalaterran eta Europako beste zenbait herrialdeetan ere.

Hasierako Baron Rojo talde hartatik Castro anaiek bakarrik segitzen dute. 12 disko kaleratu dituzte eta zapatuan, "Desafio" azken diskoko kantuak eta euren abesti arrakastatsuenak eskainiko dituzte; eta ez da faltako AC/DCren bertsiarik.

MIKEL URDANGARIN POL-POLEN

Eguakitz eta zapatuko gehiegikerien ostean, biharamonaren kontrako txertoa Mikel Urdangarin-en musika lasaia izan daiteke. Zornotzarrak bigarren diskoa kaleratu berri du, "Badira hiru urte" izenekoa, Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik. Domekan, iluntzeko 8etik aurrera, Pol-Polen, Kultur Errotaren barruan.

DATORREN ASTEBURUAN GEHIAGO...

Datorren eguakitzean, hilak 12, gaueko 10:30etan Jam aretoan Estatu Batuetako musika independientearen azken ustakabe atseginenetakoak izango dira talde gainean: Shanti RD eta June of 44. Udalaren laguntzaz antolatutako emanaldia da.

June of 44 taldearen urtea izan zen iazkoa, Estatu Batuetako eta Europako zirkuitu independenteetan gehien jo zuen Touch & Go diskotzeko taldea izan baitzen. Iazko otsailean Bartzelonan eta Bilbon izan ziren eta taldea zuzenean ikusi zutenak aho zabalik geratu ziren.

Art rock super talde bezala hartu dituzte kritikak eta orain arte kaleratu dituzten lau diskoetan King Crimson eta Miles Davies-en erreferentziak aurkitu dituzte eta, bestalde, dub, funk eta hardcore soinuak eta elektronikoak ere nahasten dituzte. Pink Floyd eta The Jesus Lizard-en arteko nahasketa bat bezalakoa direla esan du batek baino gehiagok. Hori koktela!

June of 44 taldeak kaleratu duen azken diskoak, "Four Great Points" (Quarterstick, 98), prentsa espezializatuaren laudorioak jaso ditu. Tortoise eta Fugazi bezalako taldeen eraginak aurkitu dituzte bertan. **B**



June of 44

The Young Ones, joan zen eguakitzeko emanaldian.



IKASLEEN FESTA KONTZERTUA JAM ARETOAN

Joan zen eguakitzean herriko bi rock talde gazte ikusteko aukera izan genuen Jam aretoan. Ikasleek San Tomas eta San Juan Bosco ospatzen zutela eta, Jamekoek kontzertua antolatu zuten The Elevators, The Young Ones eta Freak XXI taldeekin. Ez zen jende asko izan, baina gerturatutakoek gustora pasatu zuten, batez ere aurreko iladetako jarraitzaile sutsuek. Bi taldeak orain dela urtebete egin zuten debuta Pol-Polen eta Jam handiegi geratzen zaiela agerian geratu zen. Ordu gehiago sartu beharko dituzte lokalean.

The Elevators-ek saio serioa eskaini zuten: rock eta punk estiloko taldeen bertsiok egin zituzten, baina denboraertaineko kantua, lasai samarrak gehienak.

The Young Ones-ek (lehengo Assholes) emanaldi basatia eskaini zuten: Rocky filmearen soinu bandaren akordeetara egin zuten agerpena Borobia kantariak, Joe Ramone agurearen oinordeko azkarrak. Okasiorako dotore jantzita, saltoka eman zuten ia kontzertu osoa. Kitararekin arazoak izan zituzten eta horrek giroa epeldu egin zuten zertxobait. Lastima!

■ salduenak / urtarrila

LIBURUAK

Euskaraz

1. KRABELINA BELTZA
Juan Martin Elexpuru. Txalaparta
2. BANBULO. KRISIA
Bernardo Atxaga. Erein
3. EUSKAL IDAZLEEN IPUIN EROTIKOAK
Hainbat autore. Txalaparta
4. BANBULO. LEHEN URRATSAK
Bernardo Atxaga. Erein
5. KOADERNO GORRIA
Arantza Urretabizkaia. Erein

Erdaraz

1. COMIDA SANA PARA SABER VIVIR
Roselló/Torreiglesias. Plaza & Janes
 2. EL SOL DE BREDÁ
Arturo Pérez-Reverte. Alfaguara
 3. BABILONIA
Juan Mari Irigoien. Acento
 4. EN LA BOCA DEL DRAGÓN
Ken Follet. Grijalbo
 5. UN JARDÍN EN BADALPUR
Kenize Mourad. Muehnick
- Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu*

DISKOAK

1. AHUEN SINFONIKOA
Benito Lertxundi
 2. VIDA LOCA
Francisco Cespedes
 3. DILE AL SOL
La oreja de Van Gogh
 4. COMIN'ATCHA
Cleopatra
 5. THE BEST OF 1980-1992
U2
 6. BILBAO 00:00 H
Kepa Junkera
 7. DÓNDE ESTÁN LOS LADRONES
Shakira
- Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko*

Bergara ezagutzen lehiaketa: eguakitz honetan ez da jardunaldirik jokatu

Aste honetan ere ez da "Bergara ezagutzen" lehiaketarik izango. Mariaren Lagundiaren 200. urteurreneko ekitaldien aurkezpena gaur egitekoa zen eta Katamixartsua taldeak bertara joateko asmoa duela eta, hirugarren jardunaldia atzeratzea eskatu du. Honenbestez, hirugarren jardunaldia datorren eguakitzean, hilak 12, jokatu dute

Petu Petuan (DBH 4, Aranzadi ikastola), Katamixartsua (DBH 3, Mariaren Lagundia) eta Errastiklas (2 HSOL, Aranzadi ikastola) taldeek. Egun berean, lehen jardunaldian aritu ziren Eztakit, Hik Galdeu eta Jotapurtu ere bilduko dira. Eztakit-i kulturako galdera bat egingo zaio, lehen jardunaldian nahastu egin baitzen epai-mahaia galdera batekin.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Behaketak egiteko tokiak. 2. Atabal jolea. 3. Dolumin. Daude. 4. Auzia. Garoa, iratzea. 5. Erbioa. Jaurtiketa. Bokala. 6. Zuen, guri. Bostehun. Nor, pluralean. 7. Fosforoa. Oxigenoa. Bihiak. 8. Arrazismoa praktikatzen dutenak. 9. Eraikin-mota. Zazpi egunako epe. 10. Nebak. Osatu aditzaren infinitiboa.

Goitik behera

1. ... ere, zer gerta ere. 2. Nigana hurbildu. Edari alkoholdun. 3. Modu hartan. Entzumenik ez duena. 4. VIII. hilabete. Jardun. 5. Herri hizkeran, eta. Mina. 6. Eraso. Litoia. Potosioa. 7. Portu. Ukraniako hiria. 8. Barre xumea. Emakume zahar. 9. Aiako biztanle. Huts. 10. Errepikatuz, gorotza. Euskaraz eta kitto! Suari dariona.

Soluzioa

10. Ka. A.E.K. K.e.a.
9. Aiar. Akats.
7. Kai. Odesa. 8. Irtia. Aitso.
5. Ta. Oinazea. 6. Oidar. Li. K.
3. Hela. Gora. 4. Abuztu. Ari.
Beharpeza. 2. Etorri. Hon.
Goitik behera
1. Dore. Aste. 10. Anaiak. Osa.
7. P. O. Aileak. 8. Arrazistak.
5. Er. Itzoa. E. 6. Ziguin. D. Ak.
3. Dulu. Dira. 4. Arzoa. Ira.
1. Beharokak. 2. Arbalara.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberebizbar

Ze kaletatik aterata dago argazki hau?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Azpeitxi** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Leire Zabaleta**rentzat izan da. Antxoni jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Leireri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Aumategi**
Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

AZPEITXI

Jatexea

Aranerreka 13
Tf. 943 76 55 00

Pilar Garcia arrasatear honek psikolojia ikasketak burutu zituen eta hiru urte daramatza Markiegi autoak-en lanean. Administrari lanak betetzen ditu eta Markiegira joaten diren bezeroak atenditzeaz arduratzen da.

Pilar Garcia

Mekanika kontuetan aditua zara?

Ez.
Errobera zulatuz gero, zer egingo zenuke?

Torlojuak askatzen saiatu eta bestela laguntza eskatu.

Zertan fijatzen zara lehenbizi auto bat erosterakoan?

Lagunduriko direkzioa duen, azkarra den eta diseinua polita den.

Zenbat auto izan dituzu?

Oraingoa (Fiat Uno bat) hirugarrena.

Eta zein izatea gustatuko litzaizuke?

Bravo Turbo Diesel GT-a.

Autoan, bakarrik ala lagunduta?

Ondo lagunduta onena...

Autoestopistarik jasotzen duzu?

Batzuetan.

Bidaiazteko musika ala irratia?

Musika.

Zelako musika?

Rock sinfonikoa.

Kotxez egiteko bidaia bat?

Asko; Galiziara, Iparraldera, Bizkaiko kostara, Alpujarretara.....

Zenbatero garbitzen duzu kotxea?

Urtero, nahiz eta garbi egon (barre).

Umore onekoa ala txarrekoa zara?

Onekoa uste dut...

Zerekin jartzen zara sutan?

Berandu jeikitzearekin.

Telebistako programa bat?

"Caiga quien caiga".

Askotan ikusi duzun filmea?

"Lo que el viento se llevó", urtero ikusten dut.

Aktore bat?

Al Pacino.

Irakurritako azken liburua?

"Vagabundo en Africa", Javier Reverterena.

Ofizios aldatzekotan zer?

Psikologoa, hori ikasi dut eta.

Besteengan gehien apreziatzen duzuna?

Sinpatia.

Kirolik egiten duzu?

Urkulun pasiatu noizean behin...

Juergazalea zara?

Piskat.

Asteko egunik onena?

Zapatua.

Zenbat zigarro erretzen duzu?

Pakete bat egunean.

Eta zenbat kafe hartzen dituzu?

Hiru normalean.

Griperik jasan duzu aurten?

Bai.

San Blas opilik jan duzu?

Ez baina bedeinkatutako torradak bai.

Karnabaletarako mozorrorik badaukazu?

Ez, ez naiz mozorrotzen normalean. **B**





Idurre eta Nagore, Ostadar ileapaindegikoak



Ostadar
ILEAPAINDEGIA

Ileapaindegi mistoa
estentsioak-makilajea
fantasia koloreak-solariuma-eta abar

Estilistak

Ihauterietarako era guztietako makilaje eta orrazkerak!

Espoloia 4. behea. Bergara Tf. 943 76 72 76



Tartufo Jatetxea

IHAUTERIETAKO PROGRAMA TARTUFO JATETXEAN

Otsailaren 7an, domeka, 15:00etan, **baba-jan galanta**, 2.000 pezeta. Disko musika eta guzti!

Otsailaren 13an, zapatua, **afaria ihauterietako giroan**, disko-musika eta ezusteko oparien zozketa!

Otsailaren 14an, **San Balentin**, maiteminduondako bazkaltzeko txorrik gozoena.

Kontsultatu 2.500 pezetatik aurrerako gure menu bereziak!

Gorde zuen mahaia 943 76 35 51 telefonora deituta

San Juan auzoa,
Elgetako bidea, Bergara.



Tabernarien arteko partidua Agorrosinen

Herriko tabernariek duela 16 bat urte jokatutako partidua argazkia dakargu aste honetan. Ezkondutako tabernariek ezkongabeen aurka neurtu zituzten indarrak eta ezkongabeak 3-1eko emaitzarekin nagusitu ziren. Josean Olabarria orduko Bergarako jokalaririk epaile lanak egin zituen eta badirudi zelai erdian egindako falta bategatik ezkondutakoen aldeko penaltia adierazi zuela, ezkondutakoek guxtienez ohorezko gola egiteko.

Argazkia 1983 urte ingurukoa da: bariantea eta futbol zelaiaren ondoko etxea egiteke zeuden eta aldagelak porteria atzean zeuden garai hartan. Partidua Ospitalaren alde jokatu zen eta egin ziren beste ekimen batzuei esker 253.000 pezeta batu ziren. Horra hor ezkongabeen ekipoa, ezkerretik eskumara (parentes artean ordezkatzan zuten tabernaren izena).

been ekipoa, ezkerretik eskumara (parentes artean ordezkatzan zuten tabernaren izena).

Zutik: Luis Etxabbarri (Zer-Nai), Juanito Etxeberriarteun (Maxim's), Nicolas Zabalea (Arane), Isidro Sanchez (Deportivo), Mariano Horrilo (Loreley), Iñaki Oregi (Eusebio II), Alberto Gorosabel (Maxim's), Peio Andrinua (Irrintzi), Luis Markiegi (Ariznoa), Julio Dominguez (Maxim's) eta Adrian Zumelaga (Zumelaga).

Makurtuta: Pedro Marin (Zer-Nai), Javier Zabaleta (Arane), Francis Sasieta (Intxortu), Mariano Regorigo (Erreki), Cesar Alonso (Irrintzi), Mikel Larrañaga (Irrintzi), Agustin Iñaneta (Zer-Nai) eta Alberto Atorrasagasti (Deportivo).

Argazkia: Pedro Marin



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAI

Tf. 943 71 24 25

ARANZADI IKASTOLAN


MATRIKULAZIO

EPEA ZABALIK

Otsailaren 1etik 12ra arte
Goizez: 8:30-13:00
Arratsaldez: 15:00-18:00



Europako saria ikastolei
ingeles metodologiagatik



2 urtetik 18ra
ikastetxe berean



Garraio zerbitzua

ARANZADI

IKASTOLA



San Martin Plaza 4 • Tf: 943 76 90 71 • Faxa: 943 76 91 77

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA